

Donostian, 2020ko abenduaren 1ean

## UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

DONOSTIAKO EGOITZEN INGURUAN ESPAZIO SEGURUAK EGOKITZEARI BURUZKO MOZIO ARRUNTA

Elkarrekin Donostia udal talde politikoko bozeramaile naizen Aitzole Aranetak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikularekin bat etorrita, DONOSTIAKO EGOITZEN INGURUAN ESPAZIO SEGURUAK EGOKITZEARI buruzko honako KONTROL MOZIO hau aurkezten dut, OSOKO BILKURAN aztertzeko.

### JUSTIFIKAZIOA

COVID-19a bereziki arriskutsua da adinekoentzat. Horren ondorioz, adinekoak edo mendekotasuna duten pertsonak zaintzen dituzten zentro eta egoitzak egoiliarak prebentzioz konfinatu dituzte, kutsatzea saihesteko neurri gisa. Pandemiaren garaian, eremu publikoko osasun segurtasuna hobetzeko asmoz, erabilera aldatuz joan da, uneko beharren arabera. Adibidez, deseskaladako faseetan, kirolerako, haurrentzako edo 70 urtetik gorakoentzako ordutegiak zeuden. Geroago, ostalaritzan, aldatu egin ziren terrazen antolamendua eta har zezaketen espazioa.

Gure helduentzat, isolamendua COVIDa bera bezain gogorra izan daiteke, eta narriadura fisikoa nahiz emozionala eragin dezake. Hori dela eta, uste dugu beharrezkoa dela eremu publikoan egoitzen inguruan mugatutako eremuak egotea, egoiliarak modu seguruan atera eta gizarteratu ahal izateko, agintari eskudunek gomendatutako osasun neurriak une oro indarrean daudela.

Gai horri buruz Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) interpelazioa egin ondoren, zinegotzi ordezkariak hau esan zuen: "Egoitzek eurek eta osasun agintariak ezartzen dute, adibidez, egoiliarak atera daitezkeen ala ez. Zein mailatan gauden konfinatuta ala ez, edo murrizketen arabera, egoitza horietan dauden pertsonak ezin dira egoitzetatik atera, seguruena ez irtetea delakoan. Orduan, ezer gutxi egin dezakegu Gune Publikoek hori ziurtatzeko. Ildo horretatik, osasun agintariak irten daitezkeela erabakitzen dutenean, irten daitezkeela erabakiko dute, horretarako baldintzak betetzen direlako. Ezer gutxi gehiago egin dezakegu Gune Publikoek".

Hala ere, ekimen hau aurkeztu dugu, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Donostiako Udalaren arteko lan ildo bateratua ezarrita, egoiliarrentzat behar diren esparru mugatuak ezarri ahal izateko, modu seguruan atera eta gizarteratzeko. Hori dela eta, hona hemen gure

#### MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udalbatzak Gipuzkoako Foru Aldundiari hertsatuki eskatzen dio, Donostiako Udalarekin lankidetzan, beharrezko diren udal gunek mugatuak gaitzeko, bai adinekoen bai besteen laguntza behar dutenen egoitzen inguruan, egoiliarrek modu seguruan atera eta gizarteratu ahal izateko, agintari eskudunek gomendatutako osasun neurriak beteta. Hori guztia, inplikazio prozesu koordinatu baten bidez, zentro guztietatik hurbil dauden eremuetan aire zabaleko espazioak ahalik eta azkarren eskaintzea lortzeko, erabiltzaileak paseatzera atera ahal izan daitezen, are egoitza batzuen inguruko berdeguneak aprobetxatu eta mugatuta ere, espazio seguru gisa.

Aitzole Araneta Zinkunegi,  
Elkarrekin Donostiaren bozeramailea.